

Soziolinguistika Klusterraren funtzio propioa Hausnarketa abiatzeko dokumentua

2020ko maiatza

Sarrera

SLKren lau urteko plan estrategikoa lantzeko prozesuan, hasieratik identifikatu genuen aztergai nagusien artean erakundearen erreferentzialtasuna areagotzeko beharra. Hau da:

- a) euskararen biziberritze prozesuari ikerketa zientifiko bidez egiten diogun ekarpena sendotzea;
- b) ondorioz, administrazioen eta eragileen aitortza are handiagoa lortzea;
- c) eta bide horretatik, Soziolinguistika Klusterraren posizioa eta finantzazioa egonkortzea.

Hausnarketa estrategikoaren baitan eragileekin egindako lehen saioan SLKren erreferentzialtasunaren ideia ere berriro erabili genuen, eta horren barruan, funtzio argi bat izatea gizarteak aitortua. Horrela bada, izaera propioa eta singularitasunarena ere atera ziren, alegia, zein ote den zehazki erakundeak berariaz duen egitekoa, erakundea bera beharrezkoa bihurtzen duena. Eragile eta bazkideekin egindako bigarren saioan landu ziren bost ildo estrategikoen artean puntu hau jasotzen zuenari 'funtzio propioa' izena jarri genion.

Euskara biziberritzeko prozesuak oinarri zientifikoa behar du. Oinarri hori emateko erreferentziala izango den ikergune sendoa sortzeko egin dira saiakerak orain baino lehen. Klusterraren sorrera bera premia horrekin lotzen da zuzenean, eta harrezkero ere egin ditugu erakunde sendo eta egonkorra lantzeko ahaleginak, baina arrazoi ezberdinengatik bidean geratu dira. Aurreko plan estrategikoaren baitan EHSI (Euskal Herriko Soziolinguistika Institutua) izango zenaren oinarriak jarri genituen. Proiektuak aurrera egiteko zituen zailtasunak ikusita, bertan behera utzi genuen, baina oinarrizko ideiarri eustea ere erabaki genuen: euskararen biziberritze prozesuak ikergune indartsua behar du.

Diseinu-taldean gaia jorratu denean, antzeman da sakonera handiko kontua dela eta eskatzen duen lanketa ezin dela burutu 2020-2023 Plan Estrategikoa zehazteko dauden epeen barruan. Are gehiago, egin beharreko hausnarketaren ortzi-mugak gainditu egiten du planifikatzen ari garen aldia bera, eta begirada luzeagoa eskatzen du. Alegia, burua altxatu eta non gauden irudikatu nahi dugu, euskararen biziberritzean Klusterraren egitekoa eta funtzioa zein diren

esplizitatzea ikergune sendo gisa. Gure lekua zein den guk argi badugu, gure inguruak (bazkideek, eragileek, finantzatzaileek...) ere argi izango du; eta horrek lagundu egingo digu sendotasuna irabazten.

Dokumentu honetan proposatzen da bi lanak –plangintzaldiko helburuak eta epe luzeko ikuspegia- batera landuko dituen prozesua egitea eragile esanguratsuz osatutako talde batekin (zehazten joango garena), Zuzendaritzaren gidaritzapean, bulego teknikoko lantaldearen partaidetzarekin eta bestelako eragileen kontrastearekin.


Beraz, har bedi dokumentu hau proposamen gisa, bidea egiten joateko, bakoitzaren etxean aztertzeko eta elkarrekin lantzeko.

Marko teoriko bat

SLKren funtzio propioa aztertzeko eta mugarritzeko, lagungarri izan dakiguke marko teoriko estandarretara jotzea.

Jardun-eremu baten legitimazio-iturriak azaltzeko erabiltzen den eskema ezagunak –helize laukoitza izenekoak– lau esparru handi bereizten ditu: gizartea (mota guztietako eragile antolatuak), gobernua (boteregune politikoak), ekonomia (interes pribatuko egiturak) eta akademia (ezagutza eta ikerguneak). Esparru horietako bakoitzean interes-taldeak daude, elkarren arteko lankidetzan edota lehian.

Lau esparruen artean badira intersekzioak, lankidetzarako aukera ematen dutenak, alegia, lehia alde batera utzi, eta guztien interesekoak diren esparruak lantzeko:



Gurera ekarrita, Euskal Herrian nabarmena da gizarte antolatuaren pisua. Gainera, gero eta zabalagoa da botere publikoekin duen intersekzioa; beraz, indartsua da bektore sozio-politikoa. Aldi berean, badago ekonomiako hainbat eragilerekin ere hiru multzoen interes komuneko esparrua, enpresetan indartzen ari den gizarte erantzukizunaren bidetik (horren adibide da euskal kooperatibetan euskara biziberritzeko egiten ari den inbertsioa; edota, are hurbilago, SLKren bazkide diren Kutxa fundazioa eta Laboral Kutxa). Azkenik, gero eta handiagoa da unibertsitateen intersekzioa beste esparru guztiekin, azken hamarkadetan beste interes-taldeen premiekin bat egiteko finkatzen ari diren estrategiari esker.

Soziolinguistika Klusterra intersekzioan

Honela dago jasota SLKren sorrerako helburua:

Euskal Herrian hizkuntza normalizazio prozesuan inplikaturik dauden erakunde eta taldeentzat –pribatu, publiko, zein gizarte mailako- arlo zientifiko-aplikatutik datuak, metodologiak, eta bestelako materialak eskaintzeko (...) eta, ondorioz, normalizazio ahaleginen emaitzak hobetzeko.

Esaldi honetan berriaz aipatzen dira esparru ezberdinetako eragileak, eta SLK irudikatzen da haientzat eta haiekin lanean. Gaurtik ikusita, eta erabiltzen ari garen marko teorikoan, intersekzioaz ari da. Horren ezaugarri da, hain zuzen ere, ikerketa aplikatuari ematen zaion lehentasuna ere, akademia, erakunde publikoak, gizarte antolatu eta enpresak inplikatuz.

SLK+

Helize laukoitzaren markoa gurera ekarrita, bistakoa da interes-taldeek –izan administrazioak, gizarte eragileak, ekonomiakoak edo akademikoak– ez dutela, oro har, Euskal Herri osoko markoa eta epe luzeko ikuspegia erabiltzen. Eta hori da, hain zuzen, hiru administrazio esparrutan banatuta dagoen euskararen biziberritzeak eskatzen duen ezinbesteko funtzio bat, alegia, tokiko eta zatiko ekimenei jomuga bateratua bilatzea.

Kontua da: nola landuko eta adostuko litzateke euskararen biziberritze prozesuari Euskal Herri osoko eta epe luzeko ikuspegia emango lioken jomuga bateratu hori? Kasu honetan marko teorikoak eta esperientziak gauza bera diote: egoera ezagutzetik abiatuta, diagnosis eta proposamenak landu behar dira, elkarrekin adostasunak eraikitzeko, lankidetzazko gobernantzan. SLKren kulturatik erantsiko genuke oso garrantzitsua dela lanketa osoan zehar zientifikotasuna eta interes-talde guztien partaidetza bermatzea.


Zehatzago, euskararen biziberritze prozesuarentzat jomuga bateratua lantzeko bidean lau fase edo funtzio bereizi daitezke:



Funtzio hauek metatuak dira: lehenbizi, neurtu; gero, neurtutakoaren gainean ikertu; ondoren, ikertutakoaren artean lehentasunak proposatu; eta, azkenik, proposamenen gainean eztabaida bideratu eta adostasuna eraiki. Eskema honekin has daiteke ikusten non dagoen SLKren singularitasuna, zein litzatekeen erakundearen funtzio propioa.

Bistan da lehen bi funtzioak bete-betean sartzen direla SLKren egungo jardunean edota bere jardun desiratuan; eta, aurrerantzean ere, SLKren gidaritzapean burutu beharrekoak liratekeela. Hurrengo bi funtzioetan ere parte esanguratsua izan behar luke Klusterrak, aurrekoen ondorio diren neurrian, baina ondo aztertu beharko litzateke nola eta norekin batera. Berez, neurketatik eta ikerketatik harago joan beharrenean kezka aspaldikoa da Klusterrean: zuhurtziak eraginda, erakundeak bere burua mugatu du bere lanen emaitzak soil samar ematera, interpretatzeari eta proposatzeari toki handirik eman gabe. Baina uste dugu badela hori SLKren egitekoaren parte, eta gero eta posibleago dela parte hori aitortua izatea.

Esan bezala, Soziolinguistika Klusterra intersekzioan dago. Eta posizio horretatik bere **funtzio propioa litzateke euskararen biziberritze prozesuari jomuga bateratua –epe luzeko ikuspegi estrategikoa– bilatzeko lanean eragile aktibo izatea**, interes-taldeen aitortzarekin eta bidelagun izan daitezkeen erakundeekin lankidetzak marko bat eraikita. Lankidetzak marko horri deituko genioke SLK+, eta marko horretan funtzio propioan sakonduz argituz joango litzateke erakundeak izan beharko lukeen garapena. Oraingoz, ez zaio lehentasunik ikusten egitura berri bat sortzeari.



Gaia lantzeko prozesua

Testuinguru honetan, proposatzen dugu SLKren plan estrategikoan lan ildo bat irekitzea hurrengo hilabeteetan gai honetan sakontzeko: alde batetik, zehazteko zein den aipatutako funtzio bakoitzean SLKren parte, alegia, non eta zertan ikusten dugun gure burua; eta, bestetik, aztertzeke zein bide landu behar dugun horra heltzeko eta nola antolatu beharko genukeen beste eragileekiko lankidetzara.

Gaia lantzeko urrats hauek proposatzen ditugu:

- **Zuzendaritzan** dokumentu honen lehen zirriborroa aztertu dugu eta bigarren bertsio honetan egindako ekarpenak jasotzen ahalegindu gara. Helburua litzateke abiapuntuko proposamen bat adostea Zuzendaritzan eta bulegoan →, maiatzaren erdi alderako. Hausnarketarako abiapuntu izango den proposamena adostu behar genuke → maiatzaren erdia.
- Adostutako proposamena **hausnarketako diseinu taldean** plan estrategikorako egokitzea (hor ikusiko da nola komeni den gai hau agertzea plan estrategikoan) → maiatzaren amaiera.
- Plan estrategikoari ekin ondoren eta han ezarritako epekin prozesuaren urratsak, mugarriak, antolamendua eta erabakiak hartzeko modua zehaztuko ditugu egin dezakegu.
- Aurreikusten dugu, **gaia berariaz lantzeko taldea eratuko dela**. Zuzendaritzako eta bulegoko kideez gain bestelako

kideak ere partaide egitea proposatzen dugu. Irizpide eta ezaugarri hauek kontuan hartuko dira taldea osatzeko: lurraldetasuna, SLKrekiko lotura, generoa eta lan-eremu aniztasuna. Partaideak izendatuko dira prozesuari hasiera ematen diogunean plan estrategiko berriaren barruan.

- **Kontrasterako** hainbat lagun izatea ere aurreikusi dugu, baina horien egitekoak eta izenak ere plan estrategikoaren barruan erabakiko dira.